
FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA

2022 EKITALDIA

URTEKO KONTU LABURTUAK

AUDITORETZA - TXOSTENAREKIN BATERA

FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA

2022 EKITALDIA

URTEKO KONTU LABURTUEN

AUDITORETZA - TXOSTENA



AUDITORÍA & CONSULTORÍA

URTEKO KONTU LABURTUEN AUDITORETZA-TXOSTENA
AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINA

Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioaren Patronatuari,

Zuzendaritzaren enkarguz:

Iritzia

FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOAREN (Fundazioa) urteko kontu laburtuak ikuskatu ditugu. Honako hauek hartzen dituzte barne: 2022ko abenduaren 31ko balantze laburtua, emaitza-kontu laburtua eta egun horretan bukatu den ekitaldiko memoria laburtua.

Gure ustez, honekin batera doazen urteko kontu laburtuek zorrotasunez islatzen dituzte, alderdi nabarmen guztietan, Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioak 2022ko abenduaren 31n duen ondarea eta egoera finantzarioa, eta egun horretan bukatutako ekitaldiko eragiketen emaitzak. Horiek guztiak aplikatzekoak diren finantza-informaziorako arauak -memoria laburtuaren 2.a oharrean zehaztu dira- eta, bereziki, horietan jasotako kontabilitate-printzipio eta -jarraibideak betetzen dituzte.

Iritziaren oinarria

Auditoretza egiteko, Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzei buruzko araudian oinarritu gara. Arau horien arabera dagozkigun erantzukizunak geroago deskribatuko ditugu, gure txostenaren atal honetan: Auditorearen erantzukizunak urteko kontu laburtuen auditoretzan.

Fundaziotik independenteak gara, kontu-ikuskaritzak arautzen dituen araudian xedatutakoarekin bat Espainiako urteko kontu laburtuen auditoretzan aplikatu beharreko etika-eskakizunei (eta independentziari lotutakoei) jarraikiz. Zentzu horretan, ez dugu kontu-auditoretzaz bestelako zerbitzurik eman, eta ez da sortu aipatutako araudiaren arabera beharrezko independentzia zalantzan jarri duenik.

Gure iritzian, auditoretzarekin lortu dugun ebidentziak oinarri nahikoa eta egokia ematen du iritzia emateko.

Sueskola Gipuzkoa Fundazioaren Patronatuari, Zuzendaritzaren enkarguz, BSK Bask Consulting, S.L. - Parque Empresarial Zuatzu - Edificio Urumea, Zubiberri, 31 - Planta 2ª, Local 4. 20018 San Sebastián



Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Gure iritzi profesionalaren arabera, uneko epealdiko urteko kontuen auditoretzan akats materiala eragiteko arriskurik nabarmenenak dira auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak. Arrisku horiek osotasunean aztertu ditugu gure urteko kontu laburtuen auditoretzan, eta osotasunean eman dugu, halaber, horiei buruzko iritzia; hau da, ez dugu arrisku horietako bakoitzari buruzko iritzi bereizirik adierazi.

Jasotako dirulaguntza, dohaintza eta legatuen sarrerak aintzatestea

Fundación Sueskola Gipuzkoa Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta helburu hau du: Gipuzkoako lurralde historikoari eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde batzuei etengabe baliabideak eskaintzea, suak itzaltzearen eta prebenitzearen alorrean eta beste gai osagarri batzuetan prestatzeko eta trebatzeko. Bereziki, administrazio publikoetatik eta, batik bat, Gipuzkoako Foru Aldunditik eta Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia-Academia Vasca de Policía y Emergencias (aurrerantzean, Akademia) Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Autonomotik lortzen ditu bere helburuak lortzeko diru-sarrerak.

Urtero-urtero Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Akademiaren dirulaguntza jasotzen du Fundazioak, jarduera nagusia diruz laguntzeko eta inbertsio-behar nagusiak estaltzeko. Dirulaguntzak kobratzeko eskubidearen bidezotasuna egiztatzea eta sortzapen-irizpideen arabera emaitzetara egozte gure auditoretzaren alderdi garrantzitsuak dira, dirulaguntza horiek emaitza-kontuan duten bolumena eta ekitaldiko sarrerak zehaztean akats materiala egiteko arriskua aintzat hartuta.

Alderdi horretan gauzatutako auditoretza-prozedurek kontuan hartu dituzte, besteak beste, dirulaguntzak emateko ebazpenen zuzentasuna eta kontabilitatean egoki jaso diren, helburuaren arabera. Egiaztatu dugu bete egin direla dirulaguntzak emateko ezarritako baldintzak eta ez dagoela jasotzearen inguruko arrazoizko zalantzarik. Orobat, egiaztatu dugu zenbateko horiek geroago kobratu direla eta, dagokionean, kobratzeko dagoen saldoa zuzena dela. Ildo beretik, erantsitako memoria laburtuaren 4.h, 11.b eta 15.b oharretan azaldutako edukietan Fundazioak emandako informazioaren egokitasuna ere aztertu dugu.

Egindako prozeduretan oinarrituta, gure iritzi arrazoizkoak dira jasotako dirulaguntzen harira urteko kontu laburtuetan egindako kontabilitate-tratamendua eta informazio-xehakapena, eta bat datoz lortutako ebidentziarekin.



Patronatuaren erantzukizuna urteko kontu laburtuen inguruan

Honekin batera doazen urteko kontu laburtuak formulatzea Patronatuko kideen ardura da, eta Fundazioaren ondarea, egoera finantzarioa eta emaitzak islatu behar dituzte zorrotzasunez, Espainian entitateari aplikatzekoa zaion finantza-informaziorako arauari eta urteko kontuak iruzurren edo hutsen ondoriozko akats materialik gabe prestatzeko beharrezkotzat jotzen duten barne-kontrolari jarraikiz.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, Patronatuko kideen ardura da Fundazioak jarduneko entitatea izaten jarraitzeko gaitasuna ote duen balioztatzea. Dagokionean, jarduneko entitateari lotutako gaiak azaldu eta jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa erabili behar dute, salbu eta horiek erakundea likidatzeko eta eragiketak amaitzeko asmoa badute edota beste aukera errealistik ez badago.

Auditorearen erantzukizunak urteko kontu laburtuen auditoretzaren inguruan

Gure helburuak dira, batetik, urteko kontu laburtuek osotasunean hutsen baten edo iruzurren baten ondoriozko akats materialik ez dutenaren arrazoizko segurtasuna lortzea eta, bestetik, gure iritzia jasotzen duen auditoretza-txostena egitea.

Arrazoizko segurtasuna segurtasun-maila altua da; halere, ez du bermatzen Espainian auditoretza-jarduna arautzen duen araudiaren arabera egindako auditoretzak akats materiala beti antzemango duenik, baldin badago. Akatsak hutsen edo iruzurren ondoriozkoak izan daitezke, eta akats materializat jotzen dira, baldin eta uste bada urteko kontuetan oinarrituta erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan banaka edo batuta eragin dezaketela.

Espainian kontu-auditoretzak arautzen dituen araudiarekin bat, gure iritzi profesionala ezartzen dugu eta eszeptizismo profesionaleko jarreraz jokatzeko dugu auditoretza osoan. Eta, gainera:

- Urteko kontu laburtuetan hutsegite edo iruzurren baten ondoriozko akats materialak egoteko arriskuak identifikatzen eta balioztatzen ditugu, arrisku horiei erantzuteko auditoretzako prozedurak ezartzen ditugu eta gure iritzia oinarritzeko auditoretza-ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu. Iruzurraren ondoriozko akats materiala ez antzemateko arriskua handiagoa da hutsegitearen ondoriozko akats materiala ez aurkitzeko arriskua baino; izan ere, iruzurrak berekin ekar ditzake kolusioa, faltsutzea, nahitako ez-egiteak, nahitako adierazpen okerrak edo barne-kontrola saihestea.



- Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolari buruzko ezagutza eskuratzen dugu, ez entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko, inguruabarren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatu ahal izateko baizik.
- Erabilitako kontabilitate-politikak egokiak diren eta kontabilitate-estimazioak eta Patronatuko kideek emandako informazioa arrazoizkoak diren balioztatzen dugu.
- Patronatuko kideek jarduneko enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten erabakitzen dugu, eta, lortutako auditoretza-ebidentzian oinarrituta, ondorioztatzen dugu gertaeretan edo baldintzetan ba ote dagoen ziurgabetasun materialik, Fundazioak jarduneko entitatea izaten jarraitzeko gaitasunaren inguruan zalantza nabarmenak sortzeko modukorik. Zalantza materiala dagoela ondorioztatuz gero, urteko kontuetan horren inguruan emandako informazioari buruz ohartarazi behar dugu gure auditoretza-txostenean. Eta informazio hori okerra bada, iritzi aldatua eman behar dugu. Auditoretza-txostenaren egunera arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira gure ondorioak. Dena dela, litekeena da etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz Fundazioak jarduneko entitatea izateari utzi behar izatea.
- Urteko kontu laburtuen (eta informazioaren) aurkezpen globala, egitura eta edukia ebaluatzen ditugu, baita urteko kontu laburtuek transakzio eta azpiko gertaera guztiak egoki jasotzen dituzten ere, benetako egoera zehatz-mehatz islatzeko.

Patronatuko kideekin harremanetan egoten gara, besteak beste, planifikatutako auditoretza noiz egin eta zer irismen izango duen jakiteko, auditoretzan azaldutako kontu nagusiak aztertzeko eta auditoretzan aurkitutako barne-kontrolako edozein gabezia nabarmenen berri emateko.

Patronatuko kideei jakinarazitako arrisku nabarmenenei dagokienez, uneko epealdiko urteko kontu laburtuen auditoretzako nabarmenenak zehaztu ditugu, horiexek baitira arriskurik garrantzitsuenak.

Arriskuok gure auditoretza-txostenean deskribatzen ditugu, betiere legezko edo arauzko xedapenek arrisku horiek plazaratzea debekatzen ez badute.

BSK Bask Consulting, S.L.
R.O.A.C. zenbakia: S1005



Alfonso Goiriastuena

FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA

2022 EKITALDIA

URTEKO KONTU LABURTUAK

AURKIBIDEA

Egoera-balantze laburtua, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31koa

Emitza kontu laburtua, 2022ko eta 2021eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietakoa

Memoria laburtua

- 1. Fundazioaren izaera eta jarduera**
- 2. Urteko kontu laburtuak aurkezteko oinarriak**
- 3. Emaizten aplikazioa**
- 4. Erregistro- eta balioztapen-arauak**
- 5. Ibilgetu ukiezina**
- 6. Ibilgetu materiala**
- 7. Errentamenduak**
- 8. Izakinak**
- 9. Erabiltzaileak, zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak eta bestelako zordunak**
- 10. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk**
- 11. Ondare garbia**
- 12. Epe laburreko zorrak**
- 13. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak**
- 14. Egoera fiskala**
- 15. Sarrerak eta gastuak**
- 16. Entitatearen jarduera. Ondare-elementuak norberaren helburuetarako erabiltzea. Administrazio-gastuak**
- 17. Ondare-elementuak norberaren helburuetarako erabiltzea**
- 18. Bestelako informazioa**
- 19. Jarduera Plana betetzea**
- 20. Inbentarioa**
- 21. 2022ko abenduaren 31 ondoko gertakariak**

FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA

EGOERA BALANTZE LABURTUA, 2022KO ETA 2021EKO ABENDUAREN 31KOA
(Eurotan adierazita)



AKTIBO EZ-KORRONTEA	Oharra	22-12-31	21-12-31
AKTIBO EZ-KORRONTEA		1.532.756	1.602.453
I. Ibigetu ukiezina	5	1.447.000	1.513.278
II. Ibigetu materiala	6	85.391	88.810
III. Epe luzerako finantza-inbertsioak		365	365
AKTIBO KORRONTEA		252.253	113.725
I. Izakinak	8	13.234	10.607
II. Erabiltzaileak eta jarduera propioaren beste zordun batzuk	9	129.784	53.370
III. Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak	9	93.820	37.076
IV. Epe laburreko periodifikatzeak		5.385	4.822
V. Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk	10	10.030	7.850
AKTIBO GUZTIRA		1.785.009	1.716.178

ONDARE GARBIA	Oharra	22-12-31	21-12-31
ONDARE GARBIA	11	1.476.351	1.528.104
1) Fondo propioak		(27.108)	(41.322)
I. Fundazioko zuzkidura		30.001	30.001
I. Fundazioko zuzkidura		30.001	30.001
II. Aurreko ekitaldietako soberakinak		(71.323)	(71.953)
III. Ekitaldiko soberakina		14.214	630
2) Jasotako dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak		1.503.459	1.569.426
PASIBO KORRONTEA		308.658	188.074
I. Epe laburreko zorrak	12	120.000	80.000
I. Kreditu-erakundeekiko zorrak		120.000	80.000
II. Hartzekodun komertzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	13	188.658	108.074
1. Hainbat hartzekodun		131.222	57.892
2. Beste hartzekodun batzuk		57.436	50.182
ONDARE GARBIA ETA PASIBO GUZTIRA		1.785.009	1.716.178

Eranisiako memoria laburtuan adierazten diren 1etik 21era bitarteko oharrak 2022ko abenduaren 31ko egoera-balantze laburtuaren osagaiak dira.

EMAITZA KONTU LABURTUA, 2022KO ETA 2021EKO ABENDUAREN 31KOA
 (Eurotan adierazita)

	Oharra	(Zor) Hartzeko	
		22-12-31	21-12-31
A) Ekitaldiko soberakina			
1. Jardueraren ondoriozko sarrerak		713.848	652.472
a) Sustapen, babesle eta lankidetzen ondoriozko sarrerak	15.a	83.967	77.674
d) Dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak	15.b	629.881	574.798
2. Hornikuntzak	15.c	2.628	2.652
3. Merkataritza-jarduerako salmentak eta bestelako sarrerak	15.d	728.062	557.502
4. Pertsonal-gastuak	15.e	(706.637)	(655.783)
5. Jardueraren bestelako gastuak	15.f	(707.295)	(544.732)
6. Ibilgetuaren amortizazioa	5 eta 6	(105.751)	(101.079)
7. Ekitaldiko soberakinera intsuldatutako kapitaleko dirulaguntzak	11.b	90.967	92.217
8. Bestelako emaitzak		1.274	289
A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA		17.096	3.538
9. Finantza-sarrerak		0	0
10. Finantza-gastuak		(2.882)	(2.908)
A.2) FINANTZA ERAGIKETEN SOBERAKINA		(2.882)	(2.908)
A.3) ZERGA AURREKO SOBERAKINA		14.214	630
11. Mozkinen gaineko zergak		0	0
A.4) ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA EKITALDIKO SOBERAKINEAN AITORTUA		14.214	630
B) Ondare garbiari zuzenean egotzitako sarrerak eta gastuak			
1. Jasotako kapitaleko dirulaguntzak		25.000	25.000
B.1) ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA, ONDARE GARBIAN ZUZENEAN AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTUENGATIK		25.000	25.000
C) Ekitaldiko soberakinari egindako birsailkapenak			
1. Jasotako kapitaleko dirulaguntzak		(90.967)	(92.217)
C.1) ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA, EKITALDIKO SOBERAKINARI EGINDAKO BIRSAILKAPENENGATIK		(90.967)	(92.217)
D) Ondare garbiaren aldakuntza, zuzenean ondare garbiari egotzitako sarrera eta gastuengatik (B.1+C.1)		(65.967)	(67.217)
I) EMAITZA GUZTIRA, EKITALDIKO ONDARE GARBIAREN ALDAKUNTZA (A.4+D)		(51.753)	(66.587)

Erantsitako memoria laburtuan adierazten diren 1etik 21era bitarteko oharrak 2022ko abenduaren 31ko emaitza-kontu laburtuaren osagaiak dira.

FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA

2022KO ABENDUAREN 31N AMAITUTAKO URTEKO EKITALDIARI

DAGOKION MEMORIA LABURTUA

1. OHARRA. FUNDAZIOAREN IZAERA ETA JARDUERA

a) Fundazioaren eraketa

FUNDACIÓN SUESKOLA GIPUZKOA FUNDAZIOA (aurrerantzean Fundazioa edo SUESKOLA) irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta interes orokorreko asmoak burutzera zuzenduta dauka etengabe bere ondarea. 2009ko uztailearen 13an emandako eskritura publiko bidez eratu zen, 2009ko abenduaren 10etik aurrerako ondoreetarako, data horretan inskribatu baitzen Fundazioen Erregistroan, F-254 zenbakiarekin. Ordiziako Upabi-Aldea auzoko 2.ean dauka egoitza soziala.

Fundazioaren sortzaileek egindako hasierako ondare-zuzkidura 30.001 eurokoa da (11. oharra).

b) Lege-erregimena

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legeak eta EAEko Fundazioen Babesleztaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzeko uztailearen 23ko 115/2019 Dekretuak arautzen dute Fundazioaren jarduna.

c) Fundazioaren helburuak

Hauxe da Fundazioaren helburua: Gipuzkoako lurralde historikoari eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste lurralde batzuei etengabe baliabideak eskaintzea, suak itzaltzearen eta prebenitzearen alorrean prestatzeko eta trebatzeko; pertsonak eta higiezinak arriskuan daudenean izan beharreko jokabideaz argibideak eman eta zabaltzea, eta gizarteak horren inguruan duen ezagutza hobetzea; enpresetan, lantokietan, ikastetxeetan eta etxeetan sor litezkeen suteetan segurtasuna gorde eta sute horiek itzaltzeko teknikak ezagutzera ematea; eta, oro har, salbamenduaren —zentzu zabalenean— inguruko teknikak ezagutaraztea, alor horretan erreferentea baita egun.

Helburu orokor horren baitan, jarduera zehatz hauek izango dira garrantzitsuenak eta berehalakoak:

- Prestatzaile gaituen bidez ezagutza kudeatzea.
- Irakaskuntza-lanak egitea, alor horretako ezagutzak eskaintzea eta gaitasunak eta trebeziak sustatzea.
- Profesionalak segurtasunaren alorreko teknologia berrietan eta ezarri beharreko araudietan birziklatzea.
- Gizartean autobabesaren kultura sustatzea.
- Segurtasun-protokoloak eta gidaliburuak sortzea.

- Sueskolaren jarduera eta beraren xede diren alorrak ezagutzera emateko aldizkariak, buletinak eta era guztietako argitalpenak plazaratzea.
- Bere asmoak lortzen lagun diezaioketen hitzarmen eta akordioak lotzea, era guztietako entitateekin.
- Eta bere helburuak lortzen lagun diezaiokeen beste edozein ekintza.

d) Diru funtzionala

Urteko kontu laburtu hauek eurotan aurkeztu ditugu, euroa baita Fundazioak diharduen eremu ekonomikoan erabilitako dibisa.

2. OHARRA. URTEKO KONTU LABURTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

a) Fundazioari ezarri behar zaion finantza-informazioaren arau-esparrua

Fundazioari aplikatzeko finantza-informazioaren arau-esparrua honako hauetan zehazten da:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legean, eta EAEko Fundazioen Babesleztaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzeko uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuan.
2. Irabazi-asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Planean (Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenaren bidez onartutakoan) eta arau horren ondorengo aldaketetan.
3. Kontabilitate Plan Orokorra eta beraren arau osagarriak garatzeko Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak onartutako nahitaezko arauetan.
4. Aplikatzekoa den Espainiako gainerako kontabilitate-araudian.

b) Egoera zehaztasunez

2022ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko urteko kontu laburtuak Fundazioaren kontabilitate- erregistroetan eskuratu dira, eta ezarri beharreko finantza-informazioaren arau-esparruaren arabera eta, bereziki, arau-esparru horretan jasotako kontabilitate-printzipio eta -irizpideekin bat aurkeztu dira. Beraz, zehaztasunez adierazten dituzte egun horretan amaitutako urteko ekitaldiko ondarea, finantza-egoera eta eragiketen emaitzak.

Fundazioaren 2022ko ekitaldiari dagozkion urteko kontu laburtuak Patronatuak formulatu ditu, eta haren esanetara jarriko dira, onar ditzan. Inolako aldaketarik egin gabe onartuko dituela uste dugu.

Patronatuak, 2022ko ekainaren 23an bildurik, 2021eko ekitaldiko urteko kontuak onartu zituen.

c) Kontabilitate-printzipioak

Urteko kontu laburtu hauek egitean erabilitako kontabilitate-printzipio eta -irizpideak memoria honetako 4. oharrean (Erregistro eta Balioztatzeko arauetarako buruzkoan) jaso dira laburki. Ondarean, finantza-egoeran eta emaitzetan eragina duten nahitaezko kontabilitate-printzipio guztiak aplikatu dira urteko kontu hauek egiteko.

d) Informazioaren konparaketa

Merkataritza Kodearen 35.6 artikuluan ezarritako merkataritza-legeriarekin bat etorritik, 2022ko ekitaldiko egoera-balantze laburtuak eta emaitza-kontu laburtuak aurreko ekitaldiko kopuruak ere jaso dituzte, alderatzeko xedez.

Bestalde, enpresaren irudi zehatza eskaintzeko garrantzitsuak diren aurreko ekitaldiko egoerari buruzko datu kualitatiboak ere jaso dira memoria laburtuaren ataletan.

e) Ziurgabetasuna balioztatu eta estimatzearen alderdi kritikoak

Urteko kontu laburtuak egiteko, garrantzizko kontabilitate-estimazio batzuk erabili ditugu, eta iritziak, estimazioak eta hipotesiak egin ditugu, Fundazioaren balioztapen-arauak aplikatzeko prozesuan. Hauek dira urteko kontu laburtuetan eragin nabarmena izan duten estimazioak:

- Fundazioak urtero egiaztatzen du narriadura-zantzuak dituzten aktiboetan halakorik dagoen, eta, ondorioz, haien balio berreskuragarria zenbatesten du.
- Ibilgetu ukiezina eta ibilgetu materiala balio-bizitzari estimatzen zaizkion urte-kopuruaren arabera amortizatzen ditu Fundazioak. Ondorioz, ibilgetu horiek funtzionamenduaren, erabileraren eta luperketaren eraginez jasaten duten balio-galera zenbatetsi behar du, haietan eraginik izan lezaketen zaharkitze tekniko eta komertziala ere bazter utzi gabe.
- Epe luze horietako hornidura batzuetarako zenbatekoa.

Urteko kontu laburtuak aztertzeke egunean eskura zegoen informazio onenaren arabera egin genituen estimazio hauek. Hala ere, baliteke etorkizuneko gertaeren ondorioz hurrengo ekitaldietan estimazioak aldatu behar izatea (igotzeko edo jaisteko). Horretarako, prospekzioa erabiliko genuke, estimazio-aldaketak etorkizuneko emaitza kontuetan izan lezakeen eragina kontuan hartuta.

Bestalde, 2022ko abenduaren 31n Fundazioaren funts propioek eta maniobra funtsak balio negatiboak erakusten dituzte. Hala ere, patronoek Fundazioaren jardueraren epe laburrean ez dagoela zalantza uste dute, eta ondorioz, ezta jarduneko enpresaren printzipioaren aplikazioa ere.



f) Kontu-sailak pilatzea

Balantze laburtuko eta emaitza kontu laburtuko kontu-sail batzuk pilatuta aurkeztu ditugu, ulergarriagoak izateko. Dena den, nahitaezko informazio xehakatur memoria laburtuan sartu da, kasuan kasuko oharretan.

g) Informazioaren erantzukizuna

Urteko kontu laburtu hauek informazioa Fundazioaren patronatuko kideen ardura da.

h) Hutsen zuzenketa

Urteko kontu laburtu hauek egitean ez dugu aurkitu aurreko ekitaldiko urteko kontu laburtuetako zenbatekoak berriro emanarazi digun huts nabarmenik.

i) Urteko kontu laburtuak

Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuak 2013ko martxoaren 26an kaleratutako Ebazpenaren 3.2 idatz-zatiko I. ataleko Hirugarren zatian ezarritako baldintzak betetzen ditu Fundazioak. Irabazi-asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Plana onartu zen ebazpen horretan, eta, berorri lotuta, Fundazioaren Patronatuko kideok era laburtuan aurkezten ditugu urteko kontuak.

3. OHARRA. EMAITZEN APLIKAZIOA

Fundazioak 14.214 euroko soberakin positiboa lortu du 2022ko ekitaldian. Soberakin positibo hori honela banatuko da, eurotan:

Kontzeptuak	2022	2021
BANAKETA-OINARRIA		
Ekitaldiko soberakina	14.214	630
GUZTIRA	14.214	630
BANAKETA		
Aurreko ekitaldietako soberakinak	14.214	630
GUZTIRA	14.214	630

Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko 2016ko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 29. artikulua betetzen du Fundazioak. Honako baldintza hauek ezartzen ditu artikulua horrek:

- > Fundazioaren helburuetara bideratuko da, gutxienez, emaitza-kontuan kontzeptu guztien bidez lortutako sarreraren % 70. Horiei, baina, sarrerak lortzeko egin diren gastuak kendu beharko zaizkie, Fundazioaren helburuak betetzeari buruzkoak alde batera utzita.
- > Artikulu honetan adierazitakoaren eraginetarako, ez dira sarreratzat hartuko Fundazioaren zuzkidura osatzen duten ondasun higiezinak besterentzearen ondoriozko mozkinak, ezta zuzkiduran sartutako ondasun eta eskubideen kostu bidezko eskualdatzeak eta zuzenean eta iraunkortasunez Fundazioaren helburuetara bideratu diren ondasunak eskuratu edo kargatzearen ondoriozkoak ere, betiere transmisioaren zenbatekoa zuzkidura-izaerako edo afekzio bereko ondasun edo eskubideetan berrinbertitzen bada.
- > Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratzen sortutakoak izango dira administrazioko gastuak, bai eta Patronatuak kideei beren karguan sortzen zaizkienak ere, baldin eta itzulketa-eskubiderik badute.

Administrazioko gastuen zenbatekoak ezingo du gainditu kopuru hauetako handiena: funts propioen %5 edo ekitaldiko soberakinaren %20, betiere sarrerak lortzen sortutako gastuak kenduta (Fundazioaren helburua betetzeko sortuak salbu).

- > Patronatuak hartutako erabakiari jarraikiz, zuzkidura edo erreserbak handitzera bideratu beharko dira 29. artikuluan 2. idatz-zatian ezarritakoa betetzera bideratutako gainerako errenta edo sarrerak, administrazioko gastuak kendu ondoren; gehieneko ehuneko arregelamenduaren arabera zehaztuko da.

4. OHARRA. ERREGISTRO- ETA BALIOZTAPEN-ARAUAK

Urteko kontu laburtu hauek egiteko erabilitako erregistro- eta balioztapen-arau nagusiak irabazi-asmorik gabeko entitateen Kontabilitate Planaren arabera aurkeztu dira, Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2013ko martxoaren 26ko Ebazpenaren eta arau horren ondorengo aldaketan bidez onartua. Hona hemen:

a) Ibilgetu ukiezina

Gipuzkoako Foru Aldundiak erabiltzeko lagatako eraikinak 25 urtean amortizatuko dira.

Ibilgetu ukiezinean erregistratutako kontu-sailak (aplikazio informatikoak eta horiek garatzeko emandako aurrerakinak) eskurapen-prezioan ageri dira.

Elementu horien amortizazioa 5 urteko epean egiten da, linealki, eskuratzen direnetik abiatuta.

Fundazioak bere jardura nagusia burutzeko erabiltzen duen eraikina 25 urterako laga diote gutxienez.

Elementu horien amortizazioa 25 urteko epean egiten da, linealki, eskuratzen direnetik abiatuta.

Narriaduragatiko balio-zuzenketak eta ibilgetu ukiezinaren balioa narriatzeagatiko galeren lehengoritzeak ebaluatu eta zehazteko, 4.d oharrean —aktibo ez-finantzarioen balio-narriadura— aipatzen diren irizpideak erabiltzen ditu Fundazioak.

b) Ibilgetu materiala

Hasiera batean, eskuratzeko edo ekoizteko kostuaren arabera balioztatzen da ibilgetu materiala. Ondoren, amortizazio metatua eta narriadurak eragindako galerak kentzen zaizkio hasierako kostuari.

Fundazioak identifikatu egiten ditu berez eskudiru-fluxurik sortzen ez dituzten ibilgetu materialeko ondasunetan ibilgetu materialeko zer ondasunek sortzen dituzten eskudiru-fluxuak, eta horien helburuaren arabera sailkatzen ditu. Honako hauek dira:

- a) Eskudiru-fluxuak sortzen dituzten ibilgetuko ondasunak: ondasunak eta zerbitzuak emanez mozkina lortzeko edo merkataritza-etekina sortzeko helburua dutenak dira.
- b) Eskudiru-fluxurik sortzen ez duten ibilgetuko ondasunak: merkataritza-etekina sortzeko helbururik ez dutenak dira; aktibo horiek sortzen dituzten ekonomia-fluxu sozialak taldearentzat dira onuragarriak, eta, beraz, gizarteak jasotzen du horien onura.

Fundazioaren jarduerari erreparatuta, Fundazioaren aktibo guztiak eskudiru-fluxuak sortzen ez dituzten aktiboak direla jotzen da.

Hasiera batean, eskuratzeko edo ekoizteko kostuaren arabera balioztatzen da ibilgetu materiala. Ondoren, amortizazio metatua eta narriadurak eragindako galerak kentzen zaizkio hasierako kostuari.

Produktibitatea, gaitasuna edo eraginkortasuna handitzea nahiz ondasunen balio-bizitza luzatzea eragiten duten zabalkuntza, modernizazio edo hobekuntzen kostuak kapitalizatzeko, ondasun horien kosturik handiena hartzen da aintzat.

Mantentze- eta konponketa-gastu korranteak egin diren ekitaldiko emaitzen kargura jasotzen dira.

Ibilgetuko elementuak ordezkatzeko eta berrizatzeko kostuak aktibo gisa kontabilizatzen dira, eta, ondorioz, ordezkaturako edo berriztatutako elementuak kontabilitatetik ezabatzen dira.

Ibilgetu materialeko elementuak amortizatzeko, ondasuna funtzionatzen hasi zen eguna hartzen da abiapuntutzat. Amortizazioa linealki kalkulatzen da, kasuan kasuko aktiboari aurreikusitako balio-bizitzaren arabera:

KONTZEPTUA	Balio-bizitza zenbatetsia (urteak)
Instalazioak	4-7
Makineria	4-7
Lanabesak	4
Altzariak	6-7
Informazioa prozesatzeko ekipamendua	4

Ibilgetu materialeko elementuak besterenduz sortzen den mozkina edo galera ateratzeko, salmentagatik jasotako zenbatekoaren eta besterendutako aktiboaren kontabilitate-balioaren arteko aldea kalkulatzeko da.

Fundazioak ekitaldiaren amaieran berrikusten ditu ibilgetu materialen hondar-balioa, balio-bizitza eta amortizazio-metodoa. Berrikuspenaren ondorioz horietan aldaketarik egonez gero, estimazio-aldaketa moduan aitortuko dira.

Narriaturagatiko balio-zuzenketak eta ibilgetu materialaren balioa narriaturagatiko galeren lehengoratzek ebaluatu eta zehazteko, 4.d oharrean —aktibo ez-finantzarioen balio-narriadura— aipatzen diren irizpideak erabiltzen ditu Fundazioak.

c) Errentamenduak

Errentamendu operatiboak

Errentamendu operatiboek eragindako gastuak emaitza-kontuko "Jardueraren bestelako gastuak" epigrafean kokatzen dira kontratuaren iraupenean zehar, metodo linealari jarraituz.

d) Aktiboaren balioaren narriadura

Ekitaldia ixteko egunean edo balio-galera dagoela susmatzen den guztietan, aktibo materialen eta ukiezinen liburu-etako zenbatekoak berrikusten ditu Fundazioak, balioa narriaturagatiko ondorioz aktibo horiek galerarik izan duten ikusteko. Galera egon dela susmatzen bada, aktiboaren zenbateko berreskuragarria kalkulatu da, balioa narriaturagatiko galeraren norainokoa kalkulatzeko (balidin badago). Aktiboaren zenbateko berreskuragarritzat haxe hartzen da: arazoizko balioari salmenta-kostua kenduta ateratzen den zenbatekoaren eta birjartze-balioaren (erabilera-balioaren) arteko handiena.

Aktiboaren birjartze-kostua ateratzeko, berriz, haxe egiten da: zerbitzu-gaitasun edo potentzial bera duen aktibo bat eskuratuz gero gaur egun ordaindu beharko litzatekeen zenbatekoa ken, dagokionean, amortizazio metatua (kostuaren oinarriaren gainean kalkulatu), aktiboak izan dituen funtzionamendua, erabilera eta luperketa islatuko dituen. Teknikoki zaharkituta badago ere, kontuan hartuko da.



Ibilgetu materialeko eta ez-materialeko elementuen narriadura banan-banan kalkulatu da, hau da, elementu bakoitza bere aldetik hartuta. Ondasun bakoitzaren balio berreskuragarria balioztatzerik ez badago, ibilgetuko elementu bakoitzari dagokion ustiapen- edo zerbitzu-unitatearen zenbateko berreskuragarria finkatu du Entitateak.

Eskudiru-fluxurik sortzen ez duten ibilgetu materialeko eta ukiezineko elementuen narriaduragatiko balio-zuzenketak eta haien itzulketak (narriadura sortu duten inguruabarrak desagertzen direnean) gastu edo sarrera gisa erregistratuko dira, hurrenez hurren, emaitza-kontuan. Itzulketa egiteko, ibilgetuaren kontabilitate-balioa izango da muga, hau da, balio-narriadurarik gertatu ezean itzultze-datan aintzatetsiko zatekeena.

2022ko eta 2021eko ekitaldietan, Fundazioak ez du ikusi narriaduragatiko galera erregistratzeko zantzurik, ez ibilgetu ukiezinean ez ibilgetu materialean.

e) **Finantza-aktiboak**

Finantza-aktiboak gure kudeaketaren edo gure negozio-ereduaren arabera sailkatzen dira, finantza-aktiboak eta horien diru-fluxuen kontratu-terminoak kudeatzeko.

Finantza-aktiboen (FA) sailkapena, aktibo korronteak edo ez-korronteak izan, kategoria hauetan baneratzten da: kostu amortizatuko FA, ondare garbian aldaketak dituzten arrazoizko balio FA, kostuko FA eta emaitza kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balio FA.

Fundazioak, urteko kontu laburtuetan, **Kostu amortizatuko FA** kategorian sailkatutako finantza-aktiboak soilik aurkezten ditu. Finantza-aktibo bat kategoria honetan sartzen da, baldin eta Fundazioak inbertsioari eusten badio kontratua gauzatzetik eratorritako diru-fluxuak jasotzeko helburuarekin, eta finantza-aktiboaren kontratu-baldintzek, zehaztutako datetan, diru-fluxuak eragiten badituzte, printzipalaren kobrantzak eta ordaintzeko dagoen printzipalaren zenbatekoaren gaineko interesak baino ez direnak.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko kredituak (Fundazioaren trafiko-eragiketengatiko zerbitzuen prestazioan sortutakoak, kobrantza geroratuarekin) eta eragiketa ez-komertzialengatiko kredituak (Fundazioak emandako mailegu- edo kreditu-eragiketetatik datozenak).

Hasiera batean arrazoizko balioaren arabera balioesten dira, gehi zuzenean egotz dakizkiekeen transakzio-kostuak. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasa espliziturik ez duten merkataritza-eragiketengatiko kredituak, horien zenbatekoa epe laburrean jasotzea espero bada, balio nominalaren arabera balioetsiko dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Ondorengo balorazioa kostu amortizatuan egiten da, eta sortutako interesak emaitza kontu laburtuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, hasieran balio nominalean balioesten diren kredituak zenbateko horretan balioesten jarraituko dira, narriatu ez badira salbu.

Fundazioak dagozkion narriadurak erregistratzen ditu, kobratzeko kontuetatik berreskuratu beharreko zenbatekoaren (etorkizuneko diru-fluxuen balio eguneratua hasierako kontabilizazioan kalkulaturako interes-tasa efektibora deskontatuta) eta erregistratuta dauden liburuetakako balioaren artean dagoen aldeagatik. Ekitaldi-itxieran, gutxienez, beharrezko balio-zuzenketak egiten dira, baldin eta kategoria horretan sartutako finantza-aktibo baten balioa narriatu egin dela adierazten duen ebidentzia objektiboa badago. Zuzenketa horiek emaitza kontu laburtuan kontabilizatzen dira.

f) Finantza-pasiboak

Finantza-pasiboak gure kudeaketaren edo gure negozio-ereduaren arabera sailkatzen dira, finantza-pasiboak eta horien diru-fluxuen kontratu-terminoak kudeatzeko.

Finantza-pasiboak, baloratzerakoan, **Kostu amortizatuko finantza-pasiboen** kategorian sartzen dira. Kategoria honen barruan finantza-pasibo guztiak sailkatzen dira, emaitza kontuan aldaketak dituzten arrazoizko balioko pasibo gisa baloratu behar direnean izan ezik.

Oro har, kategoria honetan sartzen dira merkataritza-eragiketengatiko zorrak eta eragiketa ez-komertzialengatiko zorrak.

Hasieran, jasotako kontraprestazioaren arrazoizko balioan balioesten dira, zuzenean egotz dakizkiokeen transakzio-kostuen arabera doitu. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten eta kontratuzko interes-tasarik ez duten zorrak eta partaidetzen gainean hirugarrenek eskatutako ordainketak, zenbatekoa epe laburrean ordaintzea espero denean, balio nominalaren arabera balioetsiko dira, diru-fluxuak ez eguneratzearen eragina esanguratsua ez denean.

Ondorengo balorazioa kostu amortizatuan egiten da. Sortutako interesak emaitza kontu laburtuan kontabilizatzen dira, interes-tasa efektiboaren metodoa aplikatuta. Hala ere, urtebete edo gutxiagoko epemuga duten zorrak, aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera, hasieran balio nominalaren arabera balioesten badira, zenbateko horretan baloratzen jarraituko dira.

Finantza-pasiboek baja ematen zaie sortu dituzten obligazioak azkentzen direnean.

g) Izakinak

Lehengaiak eta beste hornidura batzuk beraien kostuan balioztatzen dira, hau da, eskurapen-prezioan.

h) Dirulaguntzak

Diru-izaera duten dirulaguntzak, dohaintzak eta legatuak emandako zenbatekoaren arrazoizko balioaren arabera balioztatuko dira.



Diru-izaerarik ez dutenak edo espezietaoak, berriz, jasotako ondasunaren edo zerbitzuaren arrazoizko balioarekin balioztatuko dira, baldin eta ondasun edo zerbitzu horren arrazoizko balioa fidatzeko moduan ezartzerik badago.

Fundazioak irizpide hauek erabiltzen ditu eman dizkieten dirulaguntzak kontabilizatzeko:

■ **Ustiapeneko dirulaguntzak**

Eman ostean, emaitzetan ordaintzen dira, bertan ezarritako baldintzak bete direla eta, beraz, ez dagoela kobratzeko arrazoizko zalantzarik erabakitzen duenean Fundazioak. Bestalde, emaitzetan egozten dira, sarreraren eta gastuen arteko korrelazio egokiaren arabera.

■ **Kapitaleko dirulaguntzak**

Itzuli behar ez diren laguntzak ondare garbiari zuzenean egotzitako sarreratzat erregistratuko dira, sarrera horiek zergetatik salbuetsita daudelako. Dirulaguntzaren jakinarazpena jasotakoan hasierako erregistroa egiteko, garbi izan behar da laguntza emateko hasierako ebazpenetan ezarrita dauden baldintzak bete ahal izango direla.

Hasieran aintzatesi ondoren, Fundazioak emaitzetan egozten ditu kapitaleko dirulaguntzak, diruz lagundutako ibilgetuko elementuek aurreikusten zaien balio-bizitzan galtzen duten balioaren arabera.

Aurrekoen artean ez dauden eta itzuli behar ez diren beste dirulaguntza batzuk ere erregistratzen dira, baldin eta erregistro- eta balioztapen-irizpide eta -arauen arabera emaitzari egozteko zain badaude. Horixe da etorkizunean gastuak sortuko dituzten programak finantzatzeko ematen diren dirulaguntzen kasua.

Dirulaguntza itzulgarriak pasibo gisa erregistratzen dira, ez-itzulgarri bihurtu arte.

Dirulaguntzen ondoriozko sarrerak ezin direnez aintzatesi laguntza bueltatzekoa ez izan arte, Fundazioak irizpide hauek erabiltzen ditu:

- Dirulaguntzek dagoeneko sortuta dauden gastu zehatzak edo aktibo baten jatorrizko balio osoa finantzatzen badute, eta dirulaguntza ondare garbiko sarrera gisa aintzatesteke modukoa izan aurreko ekitaldi batean egozten badira dirulaguntzari lotutako gastuak (amortizaziorako zuzkidurak, kasu), gastu horiei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa erregistratzeko baldintzak betetzen direnean egotziko dira emaitza-kontuan.
- Dirulaguntzak aktibo baten zati bat finantzatzen badu eta dirulaguntza ondare garbiko sarrera gisa erregistratzeko unean aktiboaren kontabilitate-balioa emandako kopurua baino handiagoa bada, dirulaguntza, dohaintza edo legatu hori epealdi horretan finantzatutako aktiboa amortizatzerara bideratu den zuzkiduraren proportzioan erregistratuko da emaitza-kontuan, erregistratzen den unean bertan, hau da, aurrera begira.

i) Hornidurak eta kontingentziak

Fundazioaren Patronatuko kideen ustez, ez dago urteko kontu laburtuetan erregistratutakoak baino pasibo ziur gehiago. Era berean, ez dute uste pasibo kontingenterik dagoenik.

j) Mozkinen gaineko zerga

Fundazioak arau hauei jarraitzen die: irabazi-asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezenasgorako pizgarri fiskalei buruzko 2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauari.

Erregimen fiskal horrek salbuetsi egiten ditu sozietateen gaineko zergatik hauek: Fundazioaren helburu sozialaren edo berariazko asmoaren baitan egindako jardueren ondorioz eskuratutako emaitzak, irabaziak, bazkideen kuotak eta erakunde eta organismo publikoetatik jasotako dirulaguntzak, baldin eta Fundazioaren berariazko helburu edo asmoak burutzeko eskuratzeko badira. Ildo berean, salbuetsita daude Fundazioaren helburuetan laguntzeko dohaintzak ere.

k) Saldo korronteen eta ez-korronteen arteko sailkapena

Erantsitako egoera-balantze laburtuan, saldoak korronteen eta ez-korronteen artean daude sailkatuta. Saldo korrontek Fundazioak ustiapen-ziklo normalean saldu, kontsumitu, ordaindu edo gauzatea espero dituenak dira; sailkapen horrekin bat ez datozen saldoak, berriz, ez-korrontek dira.

l) Sarrerak eta gastuak

Gastuak sortzapen-irizpidearen arabera egozten dira.

Fundazioak irmo emandako laguntzak eta urte anitzerako konprometitutako beste gastu batzuk onartzen diren ekitaldian bertan kontabilizatuko dira emaitza-kontuan, pasiboko kontuaren kargura eta hartutako konpromisoaren gaur egungo balioaren arabera.

Ondasunak edo zerbitzuak emateagatiko sarrerak adostutako zenbatekoan balioztatuko dira.

Salmenten ondoriozko sarrerak, entregatu eta jabetza bezeroaren esku geratu eta gero aintzatesten dira, kobrantza edonoiz egiten dela ere.

Zerbitzuen ondoriozko sarrerak, bestalde, prestazioaren emaitzak agerikoak eta fidagarriak direnean aintzatesten dira. Ildo horretan, ekitaldiaren amaieran zerbitzuaren prestazio-ehuneko hartzen da kontuan.

Interesengatiko sarrerak denborazko irizpide baten arabera sortzen dira, ordaintzeko dagoen printzipalaren eta interes-tasa efektibo aplikagarriaren arabera. Interes-tasa efektibo aplikagarria finantza-aktiboari aurreikusitako balio-bizitzan zenbatetsi zaizkion eskudiruzko etorkizuneko fluxuak aktibo horren liburutako zenbateko garbian deskontatzen dituen tasa da.

m) Deribatuak eta estaldura-eragiketak

Fundazioak ezarritako politikak baztertu egiten ditu finantza-tresna deribatuak eta estaldura-eragiketak.

n) Ingurumenean eragiten duten enpresa-jarduerak

Entitateak ohiko jarduerak ingurumenean sortzen duten eragina deuseztatu, mugatu edo kontrolatzeko sistemak, ekipamenduak eta instalazioak erosten egindako gastuak ibilgetuaren gaineko inbertsioztat hartzen dira.

Ingurumenari loturiko gainerako gastuak, hala nola ibilgetuko elementuak erostearekin zerikusirik ez dutenak, ekitaldiko gastutzat hartzen dira.

Ingurumenaren alorreko horniduretan, dagokionean, itxiera-egunean gertagarritzat edo benetakotzat jotzen diren ingurumen-gastuak sartzen dira, nahiz eta ez jakin, zehazki, zenbatekoak izango diren eta noiz sortuko diren. Ondorioz, itxierako egunean dagoen informazioaren arabera egin daitekeen balioztapenik onena adierazten du hornikuntza horien zenbatekoak (hornikuntzarik badago).

o) Berotegi-efektuko gasen isurien eskubideei buruzko informazioa

Fundazioaren patronatuak adierazi duenez, urteko kontu laburtu hauei dagokien kontabilitatean ez dago memorian txertatu beharreko ingurumenari buruzko partidarik, irabazi-asmorik gabeko erakundeen Kontabilitate Plan Orokorraren hirugarren atalak xedatutakoaren arabera eta berotegi-efektuko gasak isurtzeko eskubideen erregistroari, balioztapenari eta informazioari buruzko 2010eko apirilaren 6ko ebazpenaren arabera.

5. OHARRA. IBILGETU UKIEZINA

Hauxe da ibilgetu ukiezinaren osatzen duten partiden eta euren amortizazio metatuaren bilakaera, eurotan:

2022ko ekitaldiko mugimendua

KONTZEPTUA	Saldoa 21-12-31n	Gehikuntzak	Saldoa 22-12-31n
KOSTUA			
Informatika-aplikazioak	42.518	-	42.518
Erabiltzeko lagatako aktiboen gaineko eskubideak	1.942.360	-	1.942.360
Kostua Guztira	1.984.878	-	1.984.878
AMORTIZAZIOA			
Informatika-aplikazioak	(41.864)	(164)	(42.028)
Erabiltzeko lagatako aktiboen gaineko eskubideak	(429.736)	(66.114)	(495.850)
Amortizazioa Guztira	(471.600)	(66.278)	(537.878)
BALIO GARBIA	1.513.278		1.447.000

2021eko ekitaldiko mugimendua

KONTZEPTUA	Saldoa 20-12-31n	Gebikuntzak	Saldoa 21-12-31n
KOSTUA			
Informatika-aplikazioak	42.518	-	42.518
Erabiltzeko lagatako aktiboen gaineko eskubideak	1.942.360	-	1.942.360
Kostua Guztira	1.984.878	-	1.984.878
AMORTIZAZIOA			
Informatika-aplikazioak	(41.700)	(164)	(41.864)
Erabiltzeko lagatako aktiboen gaineko eskubideak	(363.623)	(66.113)	(429.736)
Amortizazioa Guztira	(405.323)	(66.277)	(471.600)
BALIO GARBIA	1.579.555		1.513.278

Erabiltzeko lagatako aktiboen gaineko eskubideak aipatzean, hauxe adierazi nahi dugu: Fundazioak bere jarduera nagusia burutzeko erabiltzen duen eraikina gutxienez 25 urterako laga diote. Aritu independenteek 2015ean egindako tasazioaren arabera, lurzoru eta eraikinek 289.525 euroko eta 1.652.835 euroko balioa dute, hurrenez hurren. Zenbateko horren pareko kapitaleko dirulaguntza erregistratu zuen Fundazioak (11.b oharra), eta 25 urteko derramari ekin zion, eraikin horren amortizazio-epa kontuan hartuta.

2022ko eta 2021eko ekitaldiak ixtean, Fundazioak guztiz amortizatutako elementuak ditu 41.700 euroko zenbatekoarekin.

Ez dago ibilgetu ukiezin narriaturik.

6. OHARRA. IBILGETU MATERIALA

Hauxe da ibilgetu materiala osatzen duten partiden eta euren amortizazio metatuaren bilakaera, eurotan:

2022ko ekitaldiko mugimendua

KONTZEPTUA	Saldoa 21-12-31n	Gehikuntzak	Saldoa 22-12-31n
KOSTUA			
Instalazio teknikoak	52.749	11.627	64.376
Makineria	26.275	-	26.275
Lanabesak	213.151	17.405	230.556
Altzariak	17.226	-	17.226
Informatika-prozesuetarako ekipamenduak	43.504	7.023	50.527
Garraio-elementuak	15.484	-	15.484
Kostua Guztira	368.389	36.055	404.444
AMORTIZAZIOA			
Instalazio teknikoak	(24.627)	(10.602)	(35.229)
Makineria	(15.438)	(4.134)	(19.572)
Lanabesak	(186.033)	(14.445)	(200.478)
Altzariak	(14.749)	(563)	(15.312)
Informatika-prozesuetarako ekipamenduak	(36.310)	(6.633)	(42.943)
Garraio-elementuak	(2.422)	(3.097)	(5.519)
Amortizazioa Guztira	(279.579)	(39.474)	(319.053)
BALIO GARBIA	88.810		85.391

2021eko ekitaldiko mugimendua

KONTZEPTUA	Saldoa 20-12-31n	Gehikuntzak	Saldoa 21-12-31n
KOSTUA			
Instalazio teknikoak	35.946	16.803	52.749
Makineria	26.275	-	26.275
Lanabesak	207.535	5.616	213.151
Altzariak	17.226	-	17.226
Informatika-prozesuetarako ekipamenduak	43.504	-	43.504
Garraio-elementuak	-	15.484	15.484
Kostua Guztira	330.486	37.903	368.389
AMORTIZAZIOA			
Instalazio teknikoak	(17.901)	(6.726)	(24.627)
Makineria	(11.303)	(4.135)	(15.438)
Lanabesak	(173.447)	(12.586)	(186.033)
Altzariak	(14.135)	(614)	(14.749)
Informatika-prozesuetarako ekipamenduak	(27.991)	(8.319)	(36.310)
Garraio-elementuak	-	(2.422)	(2.422)
Amortizazioa Guztira	(244.777)	(34.802)	(279.579)
BALIO GARBIA	85.709		88.810

Entitateak ez du ibilgetu material narriaturik.

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, oraindik erabiltzen diren eta guztiz amortizatuta dauden ondasun ibilgetu materialen zenbatekoa 245.768 eurokoa eta 202.556 eurokoa izan da, hurrenez hurren.

Entitatearen ibilgetu materialak ez du inolako karga eta zamarik.

7. OHARRA. ERRENTAMENDUAK

Fundazioak ibilgailu bat du rentingean.

2022ko ekitaldia ixtean

Indarrean dauden errentamendu operatiboen etorkizuneko ordainketen zenbatekoa hurrengo taulan xehakatu da, eurotan, muga-eguna kontuan hartuta:

	Urtebetera artekoak	1 eta 5 urte artekoak	5 urtetik gorakoak
Autoak	3.650	-	-
Guztira	3.650	-	-

2021eko ekitaldia ixtean

Indarrean dauden errentamendu operatiboen etorkizuneko ordainketen zenbatekoa hurrengo taulan xehakatu da, eurotan, muga-eguna kontuan hartuta:

	Urtebetera artekoak	1 eta 5 urte artekoak	5 urtetik gorakoak
Autoak	3.650	-	-
Guztira	3.650	-	-

8. OHARRA. IZAKINAK

Honekin batera doan egoera-balantze laburtuko kapitulu honen osaera hauxe da, eurotan:

KONTZEPTUA	2022	2021
Lehengaiak	13.191	10.563
Aurrerakinak homitzaileei	43	44
Guztira	13.234	10.607

9. OHARRA. ERABILTZAILEAK, ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATZEKO BESTELAKO KONTUAK ETA BESTELAKO ZORDUNAK

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, egoera-balantze laburtuko "Erabiltzaileak eta jarduera propioaren beste zordun batzuk" eta "Zordun komertzialak eta kobratzeko bestelako kontuak" epigrafeetako saldoa honela dago osatuta, eurotan:

KONTZEPTUA	2022	2021
Norberaren jardueraren erabiltzaileak eta bestelako zordunak	129.784	53.370
Zordunak	3.413	-
Administrazio Publikoak (14. oharra)	90.407	37.076
Guztira	223.604	90.446

10. OHARRA. ESKUDIRUA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK

2022ko eta 2021eko abenduaren 31n, egoera-balantze laburtuko "Eskudirua eta beste aktibo likido baliokide batzuk" epigrafea Fundazioaren altxortegiak osatzen du, bere osotasunean.

11. OHARRA. ONDARE GARBIA

Hau da Fundazioaren ondare garbiak azken bi ekitaldietan izan duen bilakaera, eurotan:

a) Funts propioak

2022ko ekitaldiko mugimendua

KONTZEPTUA	Fundazioko zuzkidura	Geldikina	Aurreko ekitaldietako soberakinak	Ekitaldiko soberakina	GUZTIRA
Saldoa urtarrilaren 1ean	30.001	-	(71.953)	630	(41.322)
Soberakinaren banaketa	-	-	630	(630)	-
Ekitaldiko soberakina	-	-	-	14.214	14.214
